# SARAUBE HERRIAK

*2021eko IRAILA/ SEPTIEMBRE*
*AIARAKO UDALEKO LAUHILEROKO ALDIZKARIA*
#115
*REVISTA CUATRIMESTRAL DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA*



## UDAL IKASTAROAK
PLAN DE OBRAS Y SERVICIOS
**INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO PROZESUA**

## AIARA BTT
EUSKARA IKASTAROAK
**BABIO INDUSKETAK**

**IRITZIA** · OPINIÓN



## MIREN URRESTI

*INDARKERIARIK EZ*

*Irailean jarraitu egingo du indarkeria matxistari aurre egiteko lan prozesu parte-hartzaileak. Hala, oraingoan, eta mahai teknikoa eta politikoa gauzatu ondoren, hezkuntza zentroen eta elkarteen txanda helduko da. Izan ere, irailean, Berritzegunean, hezkuntza zentroekin bilduko da berdintasun teknikaria, kasuen berri eman eta koordinazio lanarekin jarraitzeko.*

*Berez, ikastetxeak toki aproposak dira indarkeria matxista prebenitu, detektatu eta zerbitzu espezializatuetara bideratzeko eta aukera baliatu behar da.*

*Horrekin batera, emakume elkarte eta talde feministekin ere mahaia egingo da, bertan ere kasuen eta zerbitzuen berri eman eta euren ekarpenak jasotzeko, eragile inportanteak baitira indarkeria matxistari aurre egiteko orduan. Irailean bertan zehaztuko da Aiarako bilera, hain zuzen, Aiara Berdintasunaren Alde parte hartzerako foroan adostu ondoren.*

**INKESTA** · ENCUESTA

# *ZEIN IZAN DA ZURE PLANA UDAN?*

# *¿CUÁL HA SIDO TU PLAN VERANIEGO?*



**MIGUEL**

Irailera arte lan egin behar dut. Astebeteko oporrak izan nituen eta Frantzian egon ginen, Arcachonen. Orain baloratzen ari gara zer egin, Frantziara edo Ibizara joatea.



**ROSA**

Yo no he hecho nada especial. De hecho, he mantenido mi rutina, que es la misma en invierno que en verano: de casa a la tienda y de la tienda a casa.



**JESICA**

Momentuz, ez naiz inora joango, ez dut oporrik izango, koronabirusa dagoen bitartean, beldur naiz. Azaroan, dena hobeto badoa, ikusiko dut.



**ERIK**

Este año nuestra idea ha sido aprovechar el pueblo, no hemos salido por ahí. Básicamente, disfrutar de las piscinas y de lo que hay en Ayala.


SARAUBE ALDIZKARIA

BIDALI ZURE INFORMAZIOA · ENVÍANOS TU INFOMACIÓN :

Email: saraubealdizkaria@aiarakoudala.eus

Tlfn: 722 13 43 22 · Publizitatea: 688 62 53 94









**SARAUBEn agertu nahi?**

**Zure zerbitzuak hemen iragarri!**

Anuncia tu negocio en la revista!

Si no apareces, no existes.

**Anuncios desde 25€**

**1.200 ejemplares se buzonean en todos los hogares de Aiara**



**Informazioa konpromisorik gabe eskatu** · Infórmate sin compromiso:

publizitatea@komunika.eus · 688 736 956

**EDITORIALA** · EDITORIAL

# VUELVEN LOS CURSOS, CON PRECAUCIÓN

El curso 2021/2022 va a arrancar en Ayala con uno de los elementos más importantes en lo que se refiere a la vida social y cultural de la localidad; los distintos cursos que organiza el Ayuntamiento. El retorno de esta actividad va a servir para reconectar a la población con sus propias habilidades físicas y mentales y con otros y otras habitantes del municipio, algo fundamental para la salud psicológica, tanto individual como colectiva.



La reaparición de esta oferta se da en el contexto de una campaña de vacunación amplia que permite cierto margen de optimismo respecto a la evolución de la pandemia. Sin embargo, esto no se debe traducir en una relajación frente a las recomendaciones sanitarias que las autoridades vayan difundiendo. De hecho, desde el comienzo de esta crisis sanitaria han sido más de 250 los positivos aparecidos en Ayala. Así, se recuerda a quienes participen en estos cursos y a la población en general, la importancia de adoptar con seriedad y rigor todas las medidas de prevención para evitar contagios.

Va a ser ese un requisito muy relevante para que las actividades puedan desarrollarse con continuidad y sin ninguna clase de interrupción y por eso se confía en la buena predisposición de los y las participantes.

# IKASTAROAK ITZULIKO DIRA, BAINA ARRETAZ

2021/2022 ikasturtea elementu garrantzitsuarekin hasiko da Aiaran, udalerriko bizitza sozial eta kulturalari dagokienez. Izan ere, udalak antolatzen dituen ikastaro anitzetan izena emateko aukera egongo da. Jarduera horren itzulerak balioko du herritarrak berriro lotzeko euren trebezia fisiko eta mentalekin, baita herriko beste bizilagunekin ere. Hori guztia funtsezkoa da ongizate psikologiko indibidual zein kolektiboarentzat.

Eskaintza berriro agertu da txertaketa kanpainaren barruan, baikorrak izateko tarte txikia ematen baitu horrek, pandemiaren bilakaerari dagokionez. Edonola ere, itxaropen horrek ez du isla izan behar agintariek egiten eta zabaltzen dituzten osasun gomendioen betetze mailan. Alegia, krisialdia hasi zenetik 250 positibo baino gehiago agertu dira Aiaran. Gauzak horrela, gogoratzen zaie ikastaroetan parte hartuko dutenei zein biztanleria osoari, oro har, seriotasunez eta zorroztasunez hartu beharko direla prebentzio neurriak kutsadura berriak ekiditeko.

Hori baldintza aipagarria izango da ekintzak jarraitutasunarekin garatzeko, hau da, inolako etenaldirik gabe. Horregatik, hain zuzen, konfiantza dago parte-hartzaileen jarreran.





• Prestakuntza arautua eta prestakuntza ez arautua
• Bigarren Hezkuntzako Graduadoa
• Oinarrizko euskara, oinarrizko ingelesa
• Informatika
• Atzerritarrentzako gaztelania
• Artea, memoria tailerra

Landaburu 14-16, 01470 Amurrio
945892620 / 010035aa@hezkuntza.eus
Horario oficina: 15:00 -19:00

Latiorro 8, 01400 Laudio / 946721734
010035aa@hezkuntza.eus
Horario oficina: 9:00 - 13:30

Ingeniería de montes, topografía y medio ambiente
Aialur
Tel. 945 89 02 56 Fax. 945 89 23 24
> Topografía de obra > Medición de terrenos
> Deslindes y amojonamientos > Evaluaciones de impacto ambiental
> Proyectos medioambientales > Planes de gestión forestal sostenible
> Proyectos y licencias de actividad en explotaciones agropecuarias
> Tasación de pinares > Valoraciones y tasaciones
Maskuribai Industrialdea, Pab. B-10 01470 AMURRIO
aialur@aialur.com

**EUSKARA**

# *"DESIOAK" MONDA LIRONDAREKIN*



Igande Arratsaldeak Familian ekimenak jarraituko du irailaren 26an. "Desioak" lana ikusteko aukera egongo da 17:30etik aurrera. Monda eta Lironda pailazoek eskainiko duten ikuskizuna 4 urtetik gorakoentzat izango da eta protagonistek dituzten nahiak landuko ditu. Ez hori bakarrik, umeekin batera, euren desioren bat errealitate bilakatuko dute. Arespalditzan egingo dute antzezlana eta, zehazki, elizan izango da. Eguraldiak lagunduz gero, kanpoan izango da eta euria egingo balu, aldiz, barruan. COVID-19 birusaren zabalpena ekiditeko neurriak egongo dira. Horrez gain umeentzako klown antzerkia egongo da igerilekuetan irailaren 5ean, 18:30ean eta sarrera doakoa izango da.

**EUSKARA**

# *EUSKARA IKASTEKO ESKAINTZA ZABALA EGONGO DA AIARAN*




Ikasturte berria ez da hasiko soilik umeentzat, helduek ere trebatzeari ekingo diote, hala nahi izanez gero. Euskarari dagokionez, Aiarako Udalak herrian bertan taldeak sortzea sustatuko du eta izena emateko epea irailean irekiko da. Hortaz, interesdunei gomendatzen die ahalik eta lasterren harremanetan jartzea inskripzioa egiteko.
Horretarako informazio guztia eskatu dezakete 945 399 122 telefono zenbakian, cayala.alberto@ayto.araba.eus posta helbide elektronikoan edo AEKn, bai 607 673 744 telefonoan zein aiaraldea@aek.eus helbidean. Gainera, ez ahaztu bekak eskatzeko aukera egongo dela eta etxetik klase telematiko-presentzialak jasotzeko eskaintza egongo dela lehenengo aldiz.

*El curso no va a comenzar únicamente para la población más joven. De hecho, las personas adultas que tengan interés en estudiar euskara van a contar con el apoyo del Ayuntamiento de Ayala, que va a impulsar de nuevo la creación de grupos en la localidad. La inscripción se hará en septiembre y por esa razón se recomienda ponerse en contacto cuanto antes con los teléfonos 945 399 122 o 607 673 744 o los correos electrónicos cayala.alberto@ayto.araba.eus o aiaraldea@aek.eus. También habrá becas y la posibilidad de recibir clases telemáticas pero presenciales.*







**SARAUBEn agertu nahi?**
Zure zerbitzuak hemen iragarri!
Anuncia tu negocio en la revista! Si no apareces, no existes.
1.200 ejemplares se buzonean en todos los hogares de Aiara
Anuncios desde 25€
Informazioa eskatu · Infórmate sin compromiso:
publizitatea@komunika.eus 688 736 956

**EUSKARA**

# *BERBALAGUN ETA GURASOLAGUN*



Ikasturte honetan ere Gurasolagun eta Berbalagun ekimenak indarrean egongo dira Aiarako udalerrian. Egitasmoen helburua da euskaraz dakitenek egunerokoan gozatzea eta hizkuntza erabiltzea asialdian.

Hain zuzen, Gurasolagun programak familia ekintzak antolatzen ditu, adin guztietako lagunek parte har dezaten. Hainbat motatakoak dira eta maiz kanpo jarduerak proposatzen ditu. Berbalagun taldeak, aldiz, bideratuagoak daude helduentzat eta aisialdiari lotutako ekintzak prestatzen ditu.

Bi iniziatibek Aiarako Udalaren babes ekonomikoa dute eta interesdunek izena eman dezakete edo informazioa eskatzeko aukera daukate 607 673 744 telefonoan.

**INGURUMENA** · MEDIOAMBIENTE

# *VUELVE EL PUNTO VERDE MÓVIL A LOS PUEBLOS DE AYALA*



En septiembre se llevará a cabo la tercera recogida anual de las cuatro que realiza el Punto Verde Móvil. Este servicio se encarga de residuos especiales domiciliarios: aceites de motor y domésticos, bombillas, fluorescentes, productos de limpieza, radiografías, aerosoles, pinturas y disolventes, herbicidas e insecticidas, móviles, cartuchos de tinta, tóner de impresoras, textiles y pilas.

**14 DE SEPTIEMBRE**
OZEKA (11:00-12:00)
MENOIO (12:00-13:00)
KEXAA (13:00-14:00)
BEOTEGI (14:00-15:00)

**17 DE SEPTIEMBRE**
AÑES (11:00-12:00)
LEJARTZU (12:00-13:00)
ERBI (13:00-14:00)
RETES DE LLANTENO (14:00-15:00)

**18 DE SEPTIEMBRE**
RESPALDIZA (10:00-12:00)
OLABEZAR (12:00-13:00)

**21 DE SEPTIEMBRE**
AGIÑIGA (11:00-12:00)
SALMANTON (12:00-13:00)
MAROÑO (13:00-14:00)

**22 DE SEPTIEMBRE**
KOSTERA (11:00-12:00)
MENAGARAI (12:00-14:00)
MURGA (14:00-16:00)

**23 DE SEPTIEMBRE**
ZUAZA (11:00-13:00)
ETXEGOIEN (13:00-14:00)

**24 DE SEPTIEMBRE**
LUXO (12:00-13:00)
MADARIA (13:00-14:00)

**28 DE SEPTIEMBRE**
SOJO (13:00-14:00)

**29 DE SEPTIEMBRE**
LLANTENO (11:00-13:00)
IZORIA (13:00-15:00)

En Luiaondo, por otra parte, se realiza el tercer lunes de cada mes de 11:00 a 13:00, junto a la parada de autobús situada en La Torre.






**BERDINTASUNA** · IGUALDAD

# *LAIA AIARALDEAREN AURKEZPENA*



Irailaren 16an, Okondon, LAIA Aiaraldea 2021-2022 ikasturtea aurkeztuko da, emakumeentzako Jabekuntza Eskola. Bertan parte hartuko dute udalek, kuadrillak eta Aldundiak, denen artean gauzatu dutelako aurtengo programazioa, aurreko urteetako lan ildoekin jarraituz: Feminismoa, kultura berdefinitzen, Osasuna eta Indarkeria Matxista. Ekintzak Aiaraldeko emakume guztientzat eta doakoak dira, denen topaleku izan dadin, emakumeak saretzeko prestakuntza gunea delako, eraldaketarako eragile izateko. 2021-2022 programazioa aurkeztu ondoren, liburuxka postontzietan banatuko da, azken urteetan egin izan den moduan, eta horrela, etxe guztietara helduko da. Animatu eta parte hartu!

**BERDINTASUNA** · IGUALDAD

# *INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO ZERBITZUAK*



Aiarako Kuadrillak abian ditu indarkeria matxista bizi duten emakumeei laguntza emateko zerbitzuak. Hasierako kontaktua errazteko, zuzeneko telefonoak daude, arretarako bata, gizarte langilearena, eta informaziorako bestea, berdintasun teknikariarena.

Helburua zerbitzua emakumeengana hurbiltzea da, emakumeei arreta eta informazioa errazteko. Gainera, aukeratu daiteke telefonoz deitu ala whatsapp mezua bidali, nahiago dena. Aipatutako zerbitzuak aste barrukoak dira, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara. Ordutegi horretatik kanpo, eta urteko egun eta ordu guztietan, beste bi telefono daude arreta eta informazioa jasotzeko. Batetik, gizarte larrialdietarakoa, eta bestea laguntza telefonikoa ematekoa. Bietan profesional espezializatuak daude emakumeak entzuteko eta laguntza emateko, Kuadrillako Gizarte Zerbitzuekin eta Berdintasun Zerbitzuarekin koordinatuta. Beraz, indarkeria matxista bizi baduzu, edo bizi duenik ezagutzen baduzu eta zelan jokatu jakin nahi baduzu, deitu aipatutako telefonoetara eta lagunduko dizute. Informazio guztia aldizkariaren atzealdean.

*La Cuadrilla de Ayala dispone de los recursos necesarios para ayudar a mujeres que padecen la violencia machista. Un objetivo fundamental es acercar este servicio a las mujeres. Para ello se puede consultar la última página de esta revista.*



**INGURUMENA**· MEDIOAMBIENTE

# *TRUKE-KUTXA, UN RECURSO PARA COMPARTIR OBJETOS Y EVITAR LA GENERACIÓN DE RESIDUOS*



El Centro Social Otueta de Luiaondo cuenta ya con su Truke-Kutxa, un armario instalado por la Cuadrilla de Ayala que sirve para el trueque entre particulares de objetos como pequeños aparatos eléctricos y electrónicos, libros, cds, ropa, juguetes, etc. La estructura posee un tablón de anuncios, a través del cual las personas podrán solicitar o proponer la entrega de materiales que, por tamaño, no se puedan albergar en este lugar. Para ese tipo de casos (muebles, por ejemplo), además, se ha colocado una caseta de reutilización en el Garbigune de Laudio.

La filosofía de esta iniciativa es que el mejor residuo es el que no se genera, de manera que se busca prolongar la vida útil de cada objeto. De hecho, no se descarta la instalación de más kutxas en otros lugares del municipio. Por de pronto la Cuadrilla de Ayala trabaja en el desarrollo de una aplicación web que ayude en la gestión de este recurso, permitiendo al usuario o usuaria conocer la oferta de objetos y su reserva desde casa.

Además, para otoño se prevé la organización de talleres y actividades de la mano de gremios de la comarca. El objetivo de estas acciones será promover y fomentar el sector de la reparación (muebles, zapatos, textil, tapicería, etc.) y la autorreparación. El proyecto cuenta con la ayuda económica del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

*Luiaondoko Otueta Gizarte Etxean badago jadanik Truke-Kutxa. Aiarako Kuadrillak jarritako armairua da, jendeak objektuak trukatu ditzan (gailu elektriko eta elektroniko txikiak, liburuak, CDak, arropa, jostailuak...). Egiturak iragarki taula dauka handiagoak diren elementuak eskaini edo eskatzeko, baina horretarako ere etxola instalatu da Laudioko Garbigunean. Ekimenaren ardatza da hondakin onena dela sortzen ez dena, eta horregatik bilatzen da objektuen bizitza ahalik eta gehien luzatzea. Izan ere, kuadrillak ez du baztertzen kutxa gehiago kokatzea. Momentuz, erakundea lanean ari da web aplikazioa sortzeko bitartekoen kudeaketan lagundu dezan eta erabiltzaileek etxetik baliatu dezaten. Bestalde, udazkenean tailerrak eta ekintzak antolatuko dituzte eskualdeko gremioekin sustatzeko norberak ikasi dezan zapatak, altzariak edota arropa konpontzen. Proiektuak badauka Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren diru-laguntza.*



**AURREKONTUAK**· PRESUPUESTOS

# PROYECTOS PARA EL PLAN FORAL DE OBRAS

EL AYUNTAMIENTO DE AYALA HA DISPUESTO YA QUÉ DOS OBRAS PRESENTARÁ AL PLAN DE OBRAS Y SERVICIOS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA. UNO INCIDIRÁ EN LA PISTA DEPORTIVA CUBIERTA DE LUIAONDO Y EL OTRO EN LA IKASTOLA ETXAURREN.



El Ayuntamiento de Ayala ya ha ultimado los proyectos con los que participará en la convocatorioa de ayudas económicas del Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Álava. El Consistorio ha centrado su atención en dos espacios de gran uso. Uno es la pista deportiva cubierta situada en Luiaondo, mientras que el otro se sitúa en la Ikastola Etxaurren.

En lo tocante a la actuación prevista en Luiaondo, posee dos ejes claros. Por una parte, mejorar la protección de las actividades que se realizan dentro, pero por otra, contempla también las necesidades de quienes acudan al lugar en el papel de personas espectadoras.
Así, con el propósito de abordar el primer objetivo, se colocarán cerramientos parciales en la parte superior de la cubierta, dejando 3 metros libres en la parte inferior. Estos elementos se añadirán en las fachadas sur, este y oeste.

*Obra eta Zerbitzuko Foru Planean aurkeztu diren lanek hobetu nahi dituzte Luiaondoko kirol pista estalia eta Etxaurren Ikastola. Zehazki, ikastetxeko leihoak aldatu nahi dituzte energia eraginkortasunari begira.*

La fachada norte, por otro lado, será la que añadirá una marquesina de protección para que aquellas personas que acudan al lugar a observar la actividad

*Aiarako Udalak erabaki du jadanik zein lan aurkeztuko ditu Obra eta Zerbitzuetako Foru Plan deialdira. Tokiko erakundeak esku hartu nahi du Luiaondoko kirol pista estalian eta Etxaurren Ikastolan.*

*Luiaondon bi ardatz izango ditu. Alde batetik, barruan egiten diren jarduerak babestea. Bestetik, aintzat hartzea ikusle gisa egoten direnen beharrak. Gauzak horrela, lehen xedeari aurre egiteko itxidurak jarriko dira estalkiaren goiko partean, azpian 3 metro libre uzteko. Elementu horiek gehituko dira hegoaldeko, ekialdeko eta mendebaldeko*



que se desarrolle en el interior. Esta cubierta suplementaria se agregará a la existente mediante pórticos y otros elementos nuevos, así como apoyándose en la propia estructura actual. Poseerá una superficie de 175 m2 con 35 metros de longitud y 5 metros de vuelo.

*Luiaondon estalkia luzatu, babesak jarri eta espaloiak zabaldu nahi ditu Aiarako Udalak. Kirola egiten dutenen ongizatea hartu dute hizpide, baina baita ikusle moduan aritzen direnen egoera ere.*

Esta adecuación del recinto deportivo se rubricará con la pavimentación perimetral. En la fachada norte será aproximadamente de 5 metros de anchura, mientras que en el este alcanzará un metro y en el oeste los 80 centímetros. La superficie pavimentada será en total de 278 m2 e incluirá sumideros para la recogida de las aguas pluviales de las marquesinas, así como una red soterrada para su evacuación. El presupuesto de estas mejoras se estima en 268.185 euros.

**Eficiencia energética**

La otra intervención que planea la institución local atañe a la Ikastola Etxaurren y se enmarca en los esfuerzos globales del municipio por llevar a cabo un consumo más responsable de los recursos naturales. En ese sentido, el centro de enseñanza debe sustituir la actual caldera por otra que hará uso de biomasa. Un cambio ya previsto y aprobado. Este es un paso importante en el camino de la eficiencia energética y de la racionalidad.

Sin embargo, las ventanas de este espacio educativo son esencialmente las mismas que el edificio poseía en su inauguración y, por tanto, sus características y prestaciones en lo relativo al aislamiento térmico son muy mejorables en comparación con los materiales y tecnologías que se utilizan en la actualidad. Así las cosas, el Ayuntamiento propondrá a la Diputación Foral de Álava la retirada de las ventanas y su sustitución por otras que contribuyan en el objetivo de mejorar la eficiencia energética de la Ikastola Etxaurren.

*fatxadetan. Iparraldean, aldiz, markesina jarriko da ikusleen babeserako. 175 m2-ko zabalera izango du, 35 metroko luzera eta 5 metroko hegala. Gainera, kirol eremuaren moldaketa amaitzeko, espaloi berria jarriko da, euri-urak bideratuko dituena. Horrek guztiak erosotasuna ekarriko die ere kirola egiten ez dutenei. Lanak gauzatzeko aurrekontua 268.185 eurokoa da.*

*Etxaurren Ikastolari dagokionez, energia eraginkortasunari begira lan egingo dute. Irizpide hori hartu dute kontuan Aiaran zentzu orokorrean eta ekintza jakinetan islatzen da. Izan ere, udalak onartu zuen aspaldi galdara berria jartzea ikastetxean, biomasa baliatuko duena. Hala ere, udalerriaren helburuen artean dagoenez energia kontsumo arrazionalagoa egitea, eraikineko leihoak aldatuko dira. Hasierako leiho berberak direnez, ez dute bermatzen isolamendua onena izatea, energia xahuketa eraginda. Horrekin amaitzeko asmoa daukate tokiko erakundean.*

# IKASTAROAK
# CURSOS

| CURSO | LUGAR | DÍAS |
|---|---|---|
| **Restauración de muebles** | LLANTENO Antiguas escuelas | Martes // 16.00-19.30 |
| **Gimnasia de mantenimiento** | LLANTENO Antiguas escuelas | Lunes y miércoles // 18.00-19.00 |
| **Pilates Llanteno** | LLANTENO Antiguas escuelas | Martes y jueves // 20.00-21.00 |
| **Zumba Izoria** | IZORIA | Lunes y miércoles // 19.00-20.00 |
| **Bailes en línea** | IZORIA | Viernes // 19.00-20.30 |
| **Yoga** | RESPALDIZA Social | Martes y jueves // 19.00-20.00 |
| **Pilates Respaldiza** | RESPALDIZA Social | Lunes y miércoles // 19.00-20.00 |
| **Patinaje Respaldiza** | RESPALDIZA Cancha cubierta | Sábados // 12.30-13.30 |
| **Inglés lúdico II** (nacimiento 2007/2013) | RESPALDIZA Social | Viernes // 18:30-19:30 |
| **Iniciación al Taekwondo** | RESPALDIZA Social | Sábados // 11.00-12.00 |
| **Labores de aguja /bolillos** | LUIAONDO Antiguas escuelas | Martes // 16.30-19.30 |
| **Zumba I** | LUIAONDO Frontón | Lunes y miércoles // 15.00-16.00 |
| **Zumba III** | LUIAONDO Frontón | Lunes y miércoles // 20.00-21.00 |
| **Gimnasia Hipopresiva I** | LUIAONDO Salón | Martes // 17.15-18.00 |
| **Pilates II** | LUIAONDO Social Otueta | Martes y jueves // 20.00-21.00 |
| **GAP I (alta intensidad)** | LUIAONDO Frontón | Jueves // 19.00-19.30 |
| **GAP II (alta intensidad)** | LUIAONDO Frontón | Jueves // 19:45-20:45 |
| **GAP III** (nacimiento 2007/2013) | LUIAONDO Frontón | Martes // 18.15-19.15 |
| **Inglés Lúdico I** (nacimiento 2007/2013) | LUIAONDO Ludoteca | Viernes // 17.00-18.00 |
| **Patinaje I** | LUIAONDO | Sábados // 11.00-12.00 |

*El periodo de matriculación será del 1 al 14 de septiembre (ambos incluidos) a través del portal de la ciudadanía, el formulario de inscripción o mediante la hoja de inscripción presencial (www.aiarakoudala.eus). No se aceptarán inscripciones fuera de plazo, se respetará el orden y las personas empadronadas en Ayala tendrán prioridad. Para obtener tarifas reducidas, se deberá presentar la tarjeta de paro o la tarjeta de estudiante.*

| HORAS | FECHA COMIENZO | TARIFA | TARIFA REDUCIDA |
|---|---|---|---|
| 98 | 06/10/2021 | 147,00 € | 117,60 € |
| 60 | 04/10/2021 | 90,00 € | 72,00 € |
| 60 | 05/10/2021 | 90,00 € | 72,00 € |
| 60 | 04/10/2021 | 90,00 € | 72,00 € |
| 45 | 08/10/2021 | 67,50 € | 54,00 € |
| 60 | 05/10/2021 | 90,00 € | 72,00 € |
| 60 | 04/10/2021 | 90,00 € | 72,00 € |
| 60 | 09/10/2021 | 90,00 € | 72,00 € |
| 30 | 08/10/2021 | 45,00 € | 36,00 € |
| 30 | 09/10/2021 | 45,00 € | 36,00 € |
| 98 | 05/10/2021 | 147,00 € | 117,60 € |
| 60 | 04/10/2021 | 90,00 € | 72,00 € |
| 60 | 04/10/2021 | 90,00 € | 72,00 € |
| 30 | 05/10/2021 | 45,00 € | 36,00 € |
| 60 | 05/10/2021 | 90,00 € | 72,00 € |
| 15 | 07/10/2021 | 22,50 € | 18,00 € |
| 15 | 07/10/2021 | 22,50 € | 18,00 € |
| 15 | 05/10/2021 | 22,50 € | 18,00 € |
| 30 | 08/10/2021 | 45,00 € | 36,00 € |
| 30 | 09/10/2021 | 45,00 € | 36,00 € |

## TRIKITI ETA PANDERO ESKOLAK

Del 1 al 14 de septiembre se abre el plazo de matriculación. En trikiti podrán participar mayores de ocho años y en pandero a partir de seis años, en ambos casos sin límite de edad.

**Matrícula de triki: 100€ / Matrícula de pandero: 50€ / Tarifa mensual triki: 35€ / Tarifa mensual pandero: 20€**

Las clases serán de una hora los lunes o martes. Los horarios se definirán en la reunión que se celebrará antes del comienzo de curso. El curso se iniciará el 4 de octubre Plazas limitadas, tendrán prioridad las personas empadronadas en Ayala.

**ELKARRIZKETA** · ENTREVISTA



# AIARA BTT
## ANDER ETXEBARRIA IZAGIRRE

LA CARRERA AIARA BTT, QUE PARTIÓ DESDE ZUAZA Y RECORRIÓ BUENA PARTE DE LA OROGRAFÍA DE AYALA, SIRVIÓ PARA DILUCIDAR LOS CAMPEONATOS DE ÁLAVA Y EUSKADI DE XTM. CIENTOS DE AMANTES DE LAS BICICLETAS DE MONTAÑA CONFLUYERON EN LA EXITOSA PRUEBA.

**Nola baloratu duzue aurtengo Aiara BTT lasterketa?**
Oso balorazio positiboa da gurea. Lasterketa eta ibilaldia egin eta gero jendearekin hitz egin genuen eta oso pozik joan ziren hemendik. Ibilbidean zegoen denetarik, mendi bideak eta bidezidorrak. Mendi txirrindula erabiltzen dutenek oso gogoko dute. Gutxi gorabehera 470 parte-hartzaile egon ziren. 208 XTM txapelketan eta besteak ibilaldi herrikoian.

**Este año se ha decidido el Campeonato de Álava y el de Euskadi en vuestra carrera, ¿cómo ha sido ese proceso?**
El año pasado nuestra intención era que Aiara BTT fuera la segunda carrera del campeonato, pero con la pandemia no fue posible. Este año no había nadie para organizar el Campeonato de Euskadi y nosotros y nosotras queríamos sacar adelante la prueba. De manera que hablamos con la Federación de Euskadi y nos propusieron que ambos campeonatos estuvieran en juego aquí.

**Zergatik ez zuen inork lasterketa antolatzea nahi? Zaila zelako edo arriskurik ez hartzeko?**
Ez nago ziur. Aurten zaila izan da koronabirusaren traba guztiekin. Hortaz, nik uste dut jendeak utzi duela pasatzen ea hurrengo urtean errazagoa den. Egia esanda, federatua bazara, egon dira lasterketak parte hartzeko, baina ez ibilaldi herrikoiak egiteko aukera. Euskadin egin den bakarra gurea izan

da. Txapelketa antolatzeko derrigorrezkoa zen 60 kilometroko ibilbidea prestatzea edo bestela 20 kilometroko ibilbidea eta hiru buelta ematea. Gure orografiak aukera asko ematen ditu eta zirkuitua buruan eginda genuen. 60 kilometro guztira. Gainera, denboraren aldetik 3 orduko iraupena izan behar zuen probak.

**¿Cuánto tiempo os ha llevado preparar la carrera?**
A ciencia cierta no sé el tiempo exacto, pero el año pasado ya empezamos a hacer senderos y a diseñar el circuito y este año desde febrero hasta ahora no sé cuántas horas hemos invertido en hacer los senderos, preparar los cruces de caminos o pedir permisos. Esto no es solo el recorrido. Hemos atravesado zonas privadas y había que pedir permiso.

*"470 parte-hartzaile egon ziren aurtengo Aiara BTT lasterketan, eta gehienek ibilaldi herrikoia egin zuten".*

**Egunean bertan laguntza handia izan zenuten. Zenbat boluntario izan zenituzten?**
Federazioak ekarri zituen epaileak eta horrez gain, maillota ematen du sarietarako. Beste guztia gure kabuz egin dugu eta horretarako 60 eta 80 boluntarioren artean behar izan ditugu. Bidezidor eta bidegurutze ugari zeuden eta gure asmoa zen laguntzaile bat jartzea puntu arriskutsu bakoitzean, horniketan...

*"Nuestra motivación principal es mostrar que en Ayala tenemos una orografía muy bonita para la mountain bike."*

**¿Qué edición de Aiara BTT ha sido esta?**
Esta ha sido la segunda. La primera fue en 2019. Nosotros y nosotras la organizamos por amor propio, por decirlo de alguna manera. Nos gusta mucho la mountain bike y hemos estado en sitios como Ibiza o Igualada haciendo carreras de tres días. Nuestra motivación principal era mostrar que aquí tenemos una orografía muy bonita para disfrutar de la bicicleta. Haces un gran esfuerzo y tienes que trabajar mucho, pero luego la gente viene y se queda alucinada. Eso llena mucho.

**Zeintzuk ziren ibilbidearen zatirik politenak?**
Nire ustez, jaitsierak oso bidezidor dibertigarriak ziren. Arrisku puntu batekin, teknikoak zirelako. Igoerak egiten ziren mendi bideetatik, nahiko gogorrak, baina jaitsierak bidezidorretan ziren, eta hori oso gozagarria da txirrindulariarentzat.

*"Uste baino laguntzaile gehiago izan ditugu eta osatutako zerrendako persona guztiak erabiltzeko beharra ez dugu izan".*

**¿Cómo funciona el equipo Aiara BTT?**
Tenemos un grupo de Whatsapp. Dentro estamos las personas del equipo y otras voluntarias y estuvimos quedando los últimos dos o tres meses. Cada mes hacíamos una reunión y nos íbamos repartiendo el trabajo: los premios, pedir permisos a las juntas, a los cotos de caza... Para hacer los senderos quedábamos con mucha gente que nos ha ayudado. Aiara BTT, básicamente, somos una cuadrilla de amigos y amigas. Quedamos para entrenar y disfrutar de la bicicleta. Empezamos así y cuando anunciaron que la carrera Respaldiza BTT iba a desaparecer, nos animamos a organizar esta. De hecho, en esa carrera participábamos tanto compitiendo como ayudando y cuando dijeron que por la edad y otras razones lo iban a dejar, pensamos que sería una pena. Al habernos involucrado en la organización echando una mano decidimos continuar y tuvimos su ayuda.

En Aiara BTT, por otra parte, ha habido muchísimas personas voluntarias. Al principio pensábamos que quizá no íbamos a conseguir gente suficiente para todo el recorrido, para que los y las participantes estuvieran arropadas y arropados. Pero ha sido impresionante. Desde Artziniega, la Sociedad Ciclista Aiala, desde Amurrio Kuxkumendi y el Club Ciclista Amurrio... Prácticamente desde el primer día nos han expresado su disposición a ayudar y pudimos hacer una lista de gente tan extensa que no tuvimos que llamar a todas las personas que tenían intención de echar una mano.

## BOTIKAK · FARMACIAS

**IRAILEKO GUARDIAK** GUARDIAS SEPTIEMBRE

| | |
|---|---|
| 1 IBARROLA | 17-19 YARZA |
| 2 PEREZ | 20 FERNANDEZ |
| 3-5 PEREDA | 21 IBARROLA |
| 6 HERNANDEZ | 22 PEREZ |
| 7 CACERES | 23 PEREDA |
| 8 YARZA | 24-26 HERNANDEZ |
| 9 FERNANDEZ | 27 CACERES |
| 10-12 IBARROLA | 28 YARZA |
| 13 HERNANDEZ | 29 FERNANDEZ |
| 14 PEREDA | 30 IBARROLA |
| 15 PEREZ | |
| 16 CACERES | |

**URRIKO GUARDIAK** GUARDIAS DE OCTUBRE

| | |
|---|---|
| 1-3 PEREDA | 19 FERNANDEZ |
| 4 HERNANDEZ | 20 YARZA |
| 5 PEREZ | 21 PEREZ |
| 6 CACERES | 22-24 IBARROLA |
| 7 YARZA | 25 YARZA |
| 8-10 FERNANDEZ | 26 CACERES |
| 11 PEREZ | 27 PEREDA |
| 12 HERNANDEZ | 28 FERNANDEZ |
| 13 IBARROLA | 29-31 HERNANDEZ |
| 14 PEREDA | |
| 15-17 CACERES | |
| 18 HERNANDEZ | |

**AZAROKO GUARDIAK** GUARDIAS NOVIEMBRE

| | |
|---|---|
| 1 PEREDA | 16 PEREZ |
| 2 IBARROLA | 17 YARZA |
| 3 YARZA | 18 CACERES |
| 4 PEREZ | 19-21 FERNANDEZ |
| 5-7 CACERES | 22 HERNANDEZ |
| 8 FERNANDEZ | 23 YARZA |
| 9 YARZA | 24 CACERES |
| 10 PEREDA | 25 PEREDA |
| 11 HERNANDEZ | 26-28 PEREZ |
| 12-14 IBARROLA | 29 IBARROLA |
| 15 PEREDA | 30 HERNANDEZ |

**ABENDUKO GUARDIAK** GUARDIAS DICIEMBRE

| | |
|---|---|
| 1 YARZA | 17-19 YARZA |
| 2 CACERES | 20 FERNANDEZ |
| 3-5 PEREDA | 21 HERNANDEZ |
| 6 FERNANDEZ | 22 PEREDA |
| 7 YARZA | 23 CACERES |
| 8 IBARROLA | 24-26 PEREZ |
| 9 PEREZ | 27 FERNANDEZ |
| 10-12 YARZA | 28 IBARROLA |
| 13 FERNANDEZ | 29 YARZA |
| 14 IBARROLA | 30 HERNANDEZ |
| 15 PEREDA | 31 CACERES |
| 16 PEREDA | |

## GARRAIOA · TRANSPORTE

### AUTOBUSA AUTOBÚS

IRTEERA: Artziniega
SALIDA: Artziniega

IRTEERA: Okondo
SALIDA: Okondo

IBILBIDEA RUTA: Artziniega, Lanteno, Menagarai Arespalditza, Murga, Izoria, Amurrio, Laudio, Okondo.

| ARTZINIEGA-OKONDO | OKONDO-ARTZINIEGA |
|---|---|
| Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes | Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes |
| 6:20 15:20 | 07:15 16:20 |
| 7:45 16:15 | 08:35 17:10 |
| 9:35 18:50 | 10:40 17:50 |
| 11:35 20:50 | 13:25 19:50 |
| 14:20 | 15:20 21:50 |
| Asteburu eta jaiegunetan / Fin de semana y festivos | Asteburu eta jaiegunetan / Fin de semana y festivos |
| 9:20 | 8:20 |
| 14:20 | 13:20 |
| 16:25 | 15:25 |
| 21:25 | 20:25 |

### TRENA TREN

URDUÑA-BILBO (LUIAONDO, RENFE)

| Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes | Asteburu eta jaiegunetan / Fin de semana y festivos |
|---|---|
| 8:13 | 10:33 |
| 10:53 | 13:33 |
| 15:43 | 16:33 |
| 16:53 | 18:38 |
| 18:33 | 21:38 |

BILBO-URDUÑA (LUIAONDO, RENFE)

| Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes | Asteburu eta jaiegunetan / Fin de semana y festivos |
|---|---|
| 8:18 | 11:38 |
| 10:18 | 13:28 |
| 13:28 | 18:20 |
| 18:20 | 20:38 |
| 19:58 | 21:38 |

***Trenen ordutegi guztiak / Todos los horarios de trenes www.renfe.com**

## TELEFONOAK · TELÉFONOS

ANBULATORIOA.................................945 025 009
AMBULATORIO LUIAONDO 945 393 864
AMBULATORIO RESPALDIZA 945 399 332

UDALETXEA.................................... 945 399 013
AYUNTAMIENTO

AIARAKO KUADRILA..................... 945 399 122
CUADRILLA DE AYALA
AIARATUR............................................945 034 930

AIARAKO SUHILTZAILEAK.......... 94 672 6565
BOMBEROS DE AYALA
ETXAURREN IKASTOLA................945 399 287

ERTZAINTZA................................... 94 406 3860
(LAUDIO)

GALDAKAO OSPITALEA...............94 400 700
HOSPITAL DE GALDAKAO

RENFE.................................................. 902 320 320
RENFE

LA UNIÓN AUTOBUSAK............. 945 264 626
AUTOBUSES LA UNIÓN

BIZKAIBUS......................................... 902 222 265
BIZKAIBUS

TAXI....................................................... 678 351 921
TAXI A DEMANDA ..........................945 890 393

ARABAKO FORU ALDUNDIA...... 945 181818
DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA

SARAUBE ALDIZKARIA...................722 134 322
REVISTA SARAUBE

**Las guardias de 2021 pueden estar sujetas a ligeros cambios/ 2021eko guardiek aldaketa txikiak izan ditzakete**

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
1945. urtetik Laudion zurekin


Karmen Kalea 13, behea LAUDIO (Araba) 946 72 31 00

EXCAVACIONES CAMPO
OBRAS Y MANTENIMIENTO S.L
Kostera AIALA (Araba)
· Obras
· Mantenimiento
· Redes de agua y saneamiento
· Hormigón
Polígono Aldaiturriaga, NAVE E-3 Amurrio (Araba)
Bº Norzagarai nº7, 01477 Kostera (Araba)
excavacionescampo@yahoo.es
OFICINA 945 89 37 44 688 86 77 49 GERENTE 689 71 91 41

**KULTURA**

# *BABIOKO BURDIN AROKO HERRI HARRESITUAN JARRAITU DUTE INDUSKETAK EGITEN UDAN*



Aurtengo udan hirugarren aldiz ekin diote Babion dagoen Burdin Aroko herri harresitua ikertzeari. Lan horien buru da Izoriako bizilaguna, Jon Obaldia, Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea, hain zuzen. 2021eko kanpainan defentsa sistemaren egituran zentratu dira lanak, hau da, tokiak duen lehenengo horman.

Zehazki, harresiaren egitura industu da, bere nondik norakoak aztertzeko, kontserbazio maila eta abar ezagutzeko. Esparru honi itsatsita dagoen aterrazamendua ere miatu da. Zehazki, puntu horretan etxebizitzak kokatzen ziren. Horrez gain, hiru lagin egin dira aztarnategiaren barrualdearen eremu ezberdinetan, egiturak topatzeko. Egindako lanek beste helburu bat izan dute, aurreko kanpainetan presente egon dena: nekropoliaren kokapena topatzea. Izan ere, herrixkan dagoen argitu gabeko misterioa da hori.

Iaz bezala, eta pandemiaren eraginez, COVID-19 birusaren kontrako neurri zorrotzak hartu dituzte, ez bakarrik Babion, baita prozesu osoan ere. Hala eta guztiz ere, Aranzadiren egitasmoak ez dio uko egin jakintza eta informazioa jendartean zabaltzeari eta bisita gidatua eskaini zuten abuztuan, euskaraz zein gazteleraz.

Babioko aztarnategia 1981ean topatu zuten Maria Jesus Yarrituk eta beste bi ikerlarik. Aurkikuntzarekin lagin bat hartu zuten, lehen harresiko kanpoko horman, alegia. Emaitzarik ez zuten lortu eta 2018ra arte ez zen lan gehiagorik egin Babion. Urte horretan, ordea, Izoriako Administrazio Batzarrak eta Aiarako Udalak sustatu zituzten lagin batzuk eta proiektua sortu zen. Aztarnategiaren egoera orokorra aztertu zen eta ikusi zuten zenbait arazo zituela, baina aldi berean, kontserbazioa nahiko ona zela. Hori dela medio, 2019an ikerketa proiektua gauzatu zuten, Aiarako Udalak ordainduta, 5 urterako. Herri harresituan, Jon Obaldiak azaldu duenez, autrigoiak bizi izan ziren Babion. Printzipioz, eta eztabaidak badaude ere, iturri historikoei erreparatuta, tribu horren bizilekua zen Nerbioi ibaiaren ibilbidea.

*El proyecto de excavación e investigación del poblado amurallado de Babio ha continuado este verano. Al frente del proyecto está el vecino de Izoria Jon Obaldia, miembro de la Sociedad de Ciencias Aranzadi. En la campaña de 2021 -la tercera ya, de las cinco previstas- los trabajos se han centrado en el sistema defensivo, esto es, en la primera muralla, entre otras cuestiones, para conocer su estado de conservación. También se ha profundizado en su aterrazamiento, donde se ubicaban las viviendas. Además, se han llevado a cabo tres catas y se ha continuado trabajando en la ubicación de la necrópolis. Durante todo el proceso se ha seguido un estricto protocolo para evitar contagios ligados al virus Covid-19, tal y como se hizo el año pasado. Aun así, eso no ha supuesto un impedimento en la tarea de socializar las informaciones que surgen de este emplazamiento de la tribu de los autrigones que data de la Edad de Hierro. Así, en agosto se realizó una visita guiada en euskera y castellano al yacimiento.*

# ARRETA TELEFONOAK INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO
# **TELÉFONOS DE ATENCIÓN CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA**

AIARAKO KUADRILLAKO
GIZARTE LANGILEA
**TRABAJADORA SOCIAL DE LA CUADRILLA DE AYALA**

**681 084 118**

**08:00-15:00** *Astelehenetik ostiralera* *De lunes a viernes*

AIARAKO KUADRILLAKO
BERDINTASUN TEKNIKARIA
**TÉCNICA DE IGUALDAD DE LA CUADRILLA DE AYALA**

**686 587 889**

**08:00-15:00** *Astelehenetik ostiralera* *De lunes a viernes*

LARRIALDIKO ZERBITZU SOZIALAK
**SERVICIOS SOCIALES DE URGENCIA**

**945 134 444**

*24 orduz* *24 horas*

LARRIALDIAK
**URGENCIAS**

**112**

